DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Gizarte Ekintza
Acción Social

Urdaneta, 13 | Tel. 943481400 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

# GIZARTE EKINTZAKO KONTSEILU SEKTORIALA
# CONSEJO SECTORIAL DE ACCIÓN SOCIAL

## BILERA-AGIRIA / ACTA

| | |
|---|---|
| **EGUNA / DÍA:** | 2019ko urriaren 3a |
| **ORDUA / HORA:** | 10:00 h. |
| **LEKUA / LUGAR:** | Donostiako Udaleko Pleno Aretoan- Salón de Plenos del Ayuntamiento de Donostia |
| **BATZAR MOTA / SESIÓN:** | Ohikoa - Ordinaria |

## BERTARATUTAKOAK / ASISTENTES:

AFAGI – Antton Elosegi
ASADE ELKARTEA – M.ª Eugenia Pardo
Famili Zaintzaileen Aldeko Pro Elkartea / Asociación para el cuidado familiar APCF- Marian Zubiri Bustillo
ATECE Gipuzkoa – Lourdes Carrasco
AVAIM – Hortensia Gonzalez
ELIZBARRUTIKO CARITAS / CARITAS DIOCESANA Atsegin Odriozola
GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA / COLEGIO OFICIAL TRABAJO SOCIAL - M. Rosa Ugalde
GURUTZE GORRIA / CRUZ ROJA- Elena Luquin
ELKARTU – Raquel Barroso
GAUTENA- Ibai Zulaika
GENE ELKARTEA – Beatriz Alesanco
GUREAK - Mariano Cortes
IRESGI- Ana Marin
NAGUSILAN – Jesus Mari Zaldua
ONCE- Roberto Doval
SARGI – Mikel Malcorra
FUNDACION ZORROAGA FUNDAZIOA - Pablo Garcia
ITXAROPENAREN TELEFONOA / TELEFONO DE LA ESPERANZA- Maite Gonzalez
EAJ/PNV- Jaione Hervas
PP- Mikel Lezama
PERTSONA FISIKOA / PERSONA FISICA- Sylvia Gay
LEHENDAKARITZA- Aitziber San Roman
IDAZKARIA – Nora Zugasti
Gizarte Ekintzaren Zuzendaritza / Dirección de Bienestar Social - Tere Barrenetxea eta Elvira Cid
Eva Salaberria eta Almudena Esteberena, *Donostia Lagunkoia* programaren koordinatzailea eta arduraduna

## ESAN-EGINAK / DESARROLLO DE LA REUNIÓN

| | |
|---|---|
| Gai zerrendako puntuak aztertu aurretik, Aitziber San Roman lehendakariak azaldu du agintaldi berriarekin berriz eratu behar dela Kontseilua.<br><br>Ondoren, lehendakariak gonbit egin die bertaratutakoei beren burua labur aurkezteko. | Antes de tratar los puntos del orden del día, la Presidenta Aitziber San Roman explica que con el inicio de la nueva legislatura procede constituir de nuevo el Consejo.<br><br>A continuación, la Presidente invita a los presentes a presentarse brevemente. |
| **1.- Aurreko bilkuraren akta irakurtzea, zuzentzea eta, bidezkoa bada, onestea**<br><br>Eragozpenik gabe onetsi dute akta. | **1.- Lectura del acta de la reunión anterior, rectificación y si procede, su aprobación**<br><br>Es aprobada el acta sin ninguna objeción. |

| | |
|---|---|
| **2.- Gizarte Ekintzako Kontseiluan sartzeko eskabideei buruzko behin betiko erabakia** | **2.-** Decisión definitiva sobre las solicitudes de integración en el Consejo de Acción Social |
| Jakinarazi du Itxaropenaren Telefonoa erakundeak kontseiluan parte hartzeko eskatu duela. Baldintzak betetzen dituenez, bidezkoa da kontseiluko kide izendatzea. Bestetik, Aitziber San Romanek gogorarazi du elkarteren bati interesgarria iruditzen bazaio kontseiluan garrantzi sozial bereziko talderen batek parte hartzea, egin dezakeela proposamena eta bidaliko diotela gonbita elkarteari. | Informa que se ha recidibido una solicitud de una entidad “ Teléfono de la Esperanza” para participar en el Consejo. Al cumplir con los requisitos procede incluirla como nuevo miembro del Consejo.Por otro lado, la Sra. San Roman recuerda que si alguna Asociación considera que resulta de interés la participación en el Consejo de algún colectivo de especial relevancia social, se pueden hacer propuestas y se procedería a cursar la correspondiente invitación. |
| Azkenik, gaineratu du Kontseiluan pertsona fisiko gisa parte hartzeko eskatu duela Silvia Gayk. | Por útlimo, añade que también se ha recidibido la siguiente solicitud para participar como “persona física” en el Consejo: Silvia Gay. |
| Hitza hartu du Silvia Gay, eta galdetu du EHUk parte hartzen al duen Kontseiluan. Lehendakariak erantzun dio gonbidatuta dagoela baina ez duela parte hartzen, eta berriz ere bidaliko diotela gonbita. | Interviene la Sra. Gay para preguntar si la UPV participa en el Consejo. A lo cual, la Presidente le responden que aunque invitada está, no participa y que se procederá a cursar nueva invitación. |
| **3.- Alderdi politikoen Kontseiluko ordezkariak aurkeztea** | **3.- Presentación de los representantes de los partidos políticos en el Consejo** |
| Aitziber San Roman lehendakariak barkamena eskatu du aldez aurretik, deialdian izandako akats baten ondorioz ez baitzaie gonbita bidali ordezkari politikoei. | De manera previa, la Presidente Aitziber San Roman se disculpa a lo miembros y explia que debido a un fallo en la convocatoria no se cursó invitación a los representantes políticos. |
| Ondoren, bileran diren alderdi politikoen ordezkariek beren burua aurkeztu dute: EAJ eta PP. | A continuación, se presentan de nuevo los representantes de los partidos políticos presentes: EAJ y PP. |
| **4.- Kontseilua zer kidek utzi duten jakinaraztea.** | **4.- Información de los miembros que se han dado de baja.** |
| Kontseiluko idazkariak hartu du hitza, eta puntu honi buruzko informazioa eman du. Azaldu du, araudiak ezarritakoarekin bat, Kontseiluan parte hartzen ez duten elkarteek Kontseilua utzi behar dutela. Adierazi du mezu bat bidali zitzaiela etortzen ez diren elkarteei. Horietako batzuek Kontseiluan jarraitzeko interesa agertu zuten, eta beste batzuek ez, edo ez zuten erantzun. | La Secretaría del Consejo interviene para informar sobre este punto. Explica que el Reglamento estipula que las Asociaciones que no participan en el Consejo deben de darse de baja. Prosigue y añade que se envió correo a todas las asociaciones que no asistían al Consejo. Algunas de ellas mostraron su interés en continuar en el Consejo, y otras no, o no contestaron. |
| Beraz, elkarte hauei emango zaie baja: | Por lo tanto, las Asociaciones a las cuales se va dar de baja son las siguientes: |
| 1. Bidegin.<br>2. Begiris Elkartea<br>3. DYA Gipuzkoa.<br>4. Emaus Gizarte Fundazioa.<br>5. Haurralde Fundazioa.<br>6. Hezkuntza.<br>7. Lahar Elkargoa.<br>8. Lleno de Naranjas. | 1. Bidegin.<br>2. Begiris Elkartea<br>3. DYA Gipuzkoa.<br>4. Emaus Gizarte Fundazioa.<br>5. Haurralde Fundazioa.<br>6. Hezkuntza.<br>7. Lahar Elkargoa.<br>8. Lleno de Naranjas. |

| | |
|---|---|
| Nolanahi ere, idazkariak zehaztu du, etorkizunean elkarteek berriz parte hartu nahi badute, Kontseiluan ez dela arazorik izango horretarako. | De todas formas, puntualiza la Secretaria que si en un futuro las Asociaciones quisieran de nuevo participar en el Consejo, no habría ningún problema para ello. |
| **5.- Hautagaiak aurkeztea eta Gizarte Ekintza Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra eratzea.** | **5.-** Presentación de candidaturas y constitución de la Comisión Permanente del Consejo de Acción Social. |
| Idazkariak azaldu du Batzorde Iraunkorra arduratzen dela gerora Kontseiluan landuko diren gaiak prestatzeaz. Batzordea osatzeko asmoz, udan elkarteei eskatu zitzaien, nahiz izanez gero, hautagaitza aurkezteko. | La Secretaria explica que la Comisión Permanente es el órgano encargado de preparar los asuntos que posteriormente se van a tratar en el Consejo. Con el objetivo de formar una nueva Comisión, durante el verano se invitó a las Asociaciones para que formularán sus candidaturas si quisieran. |
| Hauek dira aurkeztu dituzten hautagaitzak: | Las candidaturas son las siguientes: |
| 1. Gurutze Gorria<br>2. ASADE elkartea<br>3. Helduen Hitza<br>4. Famili Zaintzailearen aldeko Pro Elkartea (APCF) (ez da ziur)<br>5. Arrats<br>6. Nagusilan<br>7. SARGI<br>8.. AFAGI<br>9. Gureak<br>10. Elkartu.<br>11. Zorroaga fundazioa | 1. Cruz Roja<br>2. Asociación Asade<br>3. Helduen Hitza<br>4. Asociación Pro. Para el Cuidado Familiar (APCF) ( ez da ziur)<br>5. Arrats<br>6. Nagusilan<br>7. SARGI<br>8.. AFAGI<br>9. Gureak<br>10. Elkartu.<br>11. Zorroaga Fundazioa |
| Azaldu du, gehienez, zazpi elkarte egon daitezkeela batzordean. Ondorioz, bozketa egin behar da bileran direnen artean: | Continúa explicando que como máximo puede haber 7 Asociaciones en la Comisión. Consecuentemente, procede efectuar una votación de los presentes: |
| Bozketa egin ondoren, honako hauek dira Batzorde Iraunkorreko kideak: | Tras la votación, se concluye que los miembros de la Comisión Permanente son los siguientes: |
| • GURUTZE GORRIA, 20 puntu<br>• AFAGI, 15 puntu<br>• GUREAK, 15 puntu<br>• ELKARTU, 14 puntu<br>• ZORROAGA ,14 puntu<br>• NAGUSILAN, 12 puntu<br>• ARRATS, 12 puntu | • CRUZ ROJA con 20 puntos<br>• AFAGI con 15 puntos<br>• GUREAK con 15 puntos<br>• ELKARTU con 14 puntos<br>• ZORROAGA con 14 puntos<br>• NAGUSILAN con 12 puntos<br>• ARRATS con 12 puntos |
| **6.- Bakardadea lantzeko taldearen bilakaerari buruzko informazioa** | **6.- Información de la evolución del grupo de Trabajo de la Soledad** |
| Lehendakariak azaldu du aurreko agintaldiaren amaieran bakardadeari buruzko lan mahai bat eratu zela. Lehenengo bileran ondorioztatu zuten taldearen helburuak zehaztu behar zirela. Lehendakariak erantsi du Kontseiluko kide guztiei bidaliko dietela bilera hartan hitz egindakoaren laburpena. Helburua hain zabala izanda, egokia iruditu zitzaien agintaldi berriarekin lanari berriro ekitea. Gainera, jakinarazi du hainbat ekimen ari | Explica la Presidenta que a finales de la legislatura anterior se constituyó una mesa de trabajo relativa a la Soledad. En la primera reunión se concluyó que resultaba necesario definir los objetivos del Grupo. Añade la Presidenta que se enviará un resumen de lo tratado en aquella reunión a todos los miembros del Consejo. Siendo el objeto tan amplio se consideró adecuado retomar el trabajo con la nueva legislatura. Además, informa que se están llevando a |

| | |
|---|---|
| direla egiten bakardadearen inguruan, besteak beste, Itxaropenaren Telefonoa elkarteak Donostia Lagunkoiaren laguntzarekin egindakoak. | a cabo numerosas inciativas en relacion a la Soledad, entre ellas las llevadas a cabo por la Asociación Teléfono de la Esperanza con la ayuda de Donostia Lagunkoia. |
| Lehendakariak adierazi du orain dela egun batzuk bilera bat egin zutela Donostia Lagunkoia programaren arduradun Eva Salaverriarekin eta Adinekoak Zerbitzuaren buru Almudena Esteberenarekin, eta, bilera hartan ondorioztatu zutenez, zuhurrena litzatekeela beste foro batzuek abian jarri dituzten ekimenetan parte hartzea eta lantaldearen lanei 2020. urtearen hasieran ekitea berriz. Izan ere, ikusi dute lantaldean parte hartzen duten elkarte askok ekimenetan ere hartzen dutela parte, eta, beraz, bikoiztasunak saihestu nahi dituzte. | Añade la Presidenta que en la reunión mantenida hace unos días con Eva Salaverria, responsable del programa Donostia Lagunkoia, Almudena Esteberena, Jefa del Servio de la Tercera Edad, se concluyó que lo más prudente es particpar en las iniciativas que ya se han lanzado desde otros foros y retomar los trabajos del grupo de trabajo a principios del año 2020. Ello se debe que se ha constatado que muchas Asociaciones que participan en el Grupo de trabajo participan también en las iniciativas y que, por tanto, se quieren evitar duplicidades. |
| **7. Jasotako gaien berri ematea** | **7. Dar cuenta de los temas recogidos** |
| Idazkariak azaldu du, elkarteei egindako gonbitari erantzunez, hainbat proposamen jaso dituztela agintaldian zehar aztertzeko. Azaldu du gai horiek aldez aurretik landuko dituztela Batzorde Iraunkorrean eta gero Kontseiluan azalduko dituztela, egoki iritzitako lehentasunaren arabera. | La Secretaria explica que en respuesta a la invitación efectuada a las Asociaciones, se han recibido numerosas propuestas de temas a tratar a lo largo de la legislatura. Explica que estos temas se van a trabajar previamente en la Comisión Permanente y que a posterior se expondrán en el Consejo en orden a la prioridad que se estime conveniente. |
| Lehendakariak hartu du hitza, eta azaldu du badirela urtero jorratu beharreko gai batzuk, hala nola memoria eta aurrekontua, baina azter daitezkeela beste gai batzuk ere. | Interviene la Presidenta para explicar que hay ciertos temas a tratar anualmente como son la Memoria y el Presupuesto pero que también se pueden tratar otros temas. |
| Idazkariak azaldu du, gutxienez, ohiko hiru bilera egin behar dituztela, baina, komenigarria izanez gero, egin ditzaketela gehiago ere. Bestalde, araudiak ezartzen duenez, kideek eska dezakete ohiz kanpoko bilera bat egiteko, gai jakin bat aztertu nahi izanez gero. | La Secretaria explica que como mínimo han de celebrarse 3 sesiones ordinarias pero que de ser conveniente podrían convocarse más. El Reglamento también prevé la posibilidad de que los miembros pueden solicitar una reunión extraordinaria para tratar un tema concreto . |
| **8. Galderak eta eskaerak** | **8. Ruegos y preguntas** |
| Silvia Gayk galdetu du Kontseiluaren bidez egin al dezaketen aurrekontuan sartzeko proposamenik, eta, hala bada, noiz den horretarako garaia. | La Sra. Silvia Gay pregunta si a través del Consejo se pueden hacer propuestas para incluir en el Presupuesto y de ser así, cuando se debe llevar a cabo. |
| Lehendakariak azaldu dio jadanik berandu dela 2020ko aurrekonturako, udaberrian hasten baitira aurrekontuaren zirriborroa prestatzen. Beraz, azaldu du urte hasiera dela proposamenak egiteko unerik egokiena. | La Presidenta le explica que para el Presupuesto del 2020 ya es tarde ya que las áreas empiezan con el borrador del presupuesto en primavera. Por tanto, les explica que a inicios de año es el momento idóneo para hacer las propuestas. |
| Bilera 11:30ean amaitu da. | La reunión concluye a las 11h 30 |
| **Donostian, 2019ko apirilaren 30ean.** | **En Donostia, a 3 de octubre de 2019** |